

GABONAK NAVIDADES

2014



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



Luis María Milá Sagnier
Mutualista desde 1972

Invierte tus ahorros y disfruta
de un **sueldo extra** toda la vida
contrata **Renta Vitalicia Remunerada**

Mercedes Sala Par
Su cónyuge



El **Seguro de Renta Vitalicia Remunerada** es una forma **segura, rentable y muy atractiva** de invertir tu dinero. Tú y tu familia, tendréis la tranquilidad de contar con unos **ingresos adicionales gestionados** por una entidad solvente.

**MÁS
RENTABILIDAD**

4,86%¹ rentabilidad garantizada para 2014

**EXCELENTE
FISCALIDAD**

**1,68%² frente al 21% en el resto de
productos de ahorro**

LIQUIDEZ

Permite recuperar la inversión³

www.mutualidadabogacia.com



Para más información llama al 914 35 24 86
o envía un correo a buzon@mutualidadabogacia.com

1 Sin deducir costes del seguro.

2 Tributación para mayores de 70 años.

3 Dependiendo de la modalidad de contratación.

Urte bukaeran gaude eta aurtengo urtea ere zaila izan da, izan ere, egoera ekonomiko larria dago, ustelkeria bizitzaren ia arlo guztietan ageri da, eta arlo juridikoa eta Bazkunekoa zailtzen duten lege berrien argitalpen eta indarrean sartzea gertatu da, arlo horiek ez hain adeitsuak, ez hain bidezkoa eta ez hain soziala bihurtuz. Hala ere, urte amaiera honetan, AGERKARI honen taldeak etorkizunaren aldeko eta gure lanbidearen eta bizitzaren gauza positiboen aldeko apustua egin nahi du. Halaber, eskerrak eman nahi dizkie laguntzaile, artikulugile, iragarkigile eta, batez ere, irakurle guztiei, interesa eta leialtasuna erakutsi dutelako. Horrenbestez, datorren urtean ere informatzen ahaleginduko gara eta lankideek, epaileek, fiskalek, irakasleek eta doktoreek gurekin modu eskuzabalean elkarbanatzen dituzten gaurkotasuna, ezagutzak eta gogoetak biltzen. Horrez gain, kultura eta aisiarako plataforma izaten ahaleginduko gara, zorrotasunez baina maitasunez.

2015 ZORIONTSUA

Zorionak Carlos Fuentenebro DEKANOARI, BATZORDEKIDE guztiei (Javi Bolado, Gemma Escapa, Ramón Lasagabaster, Ana Palacio, Aitzol Asla, Ana Bermejo, Luis Mari Cordero, Javier Santafé, Patricia Bárcena, Angel Martín, Nahia Llona, Esteban Umerez, Javi Muguruza), Alberto KUDEATZAILEARI, PJEko, Liburutegiko, Dekanatuko, Arbitraia Epategiko, Administrazio, Atezaintzako eta Garbitasun zerbitzuko lankideei, ikastaro eta jardunaldietako hizlariei, eta BATZORDE ETA AZTERLAN TALDEETAKO partaideei –aurten ere aldizkarirako artikulua idatzi dituzte eta–.

Zorionak baita ere 2014. urtean zehar aldizkarirako artikulua bidali dutenei, izan ere, doan egin dute lan hori eta testu bikainak eta erabat interesgarriak izan dira, nola Bazkuneko kideontzat, hala aldizkaria irakurtzen duten beste irakurleentzat.

Zorionak baita ere gure LANKIDEEI: Benjamin Martínez de Musitu, Rafael Pedro Castrillo, Carlos Ais, Maitane Valdecantos, Marisa Salvador, Juan Angel Anta eta Ainhoa Bilbao, horiek guztiek gure begirunea eta esker ona merezi dute eta. Laburbilduz, ZORIONAK, JAI ZORIONTSUAK ETA 2015. URTE ZORIONTSUA DENOI!

En el final de un año que como todos ha resultado ser también controvertido, difícil, por la persistente situación económica, por la notoriedad de la corrupción y su aterradora presencia en casi todos los órdenes de nuestra vida por la publicación y entrada en vigor de leyes que, una vez más hacen de nuestro entorno jurídico y colegial un espacio mucho menos amable, menos justo y menos social el equipo de edición de EL BOLETIN sin embargo quiere realizar un brindis por el futuro, y por los aspectos positivos de nuestra vida profesional y personal y agradecer a todos los colaboradores, articulistas, anunciantes y, sobre todo, lectores, vuestro interés y fidelidad y comunicaros que durante el próximo año, intentaremos, en todo caso, seguir informando, recogiendo la actualidad, los conocimientos y las reflexiones que- desinteresadamente- comparten con nosotros compañeros, jueces, fiscales, profesores y doctores tratando de ofrecer, así mismo, una plataforma de cultura y entretenimiento con rigor y el mayor de los afectos.

FELIZ 2015

Al DECANO Carlos Fuentenebro, a todos los MIEMBROS DE LA JUNTA (Javi Bolado, Gemma Escapa, Ramón Lasagabaster, Ana Palacio, Aitzol Asla, Ana Bermejo, Luis Mari Cordero, Javier Santafé, Patricia Bárcena, Angel Martín, Nahia Llona, Esteban Umerez, Javi Muguruza), a nuestro GERENTE Alberto, a los compañeros de La E.P.J, Biblioteca, Decanato, Tribunal Arbitral, Administración, Consejería, Limpieza, a los ponentes de cursos y jornadas y las COMISIONES y GRUPOS DE ESTUDIO que han colaborado a lo largo del 2014 con sus artículos

A todos los que han colaborado con la revista durante el 2014 enviándonos desinteresadamente artículos brillantes y de gran interés para los colegiados y para lectores de otros sectores que tienen acceso al Boletín.

A los COMPAÑEROS Benajmin Martínez de Musitu, Rafael Pedro Castrillo, Carlos Ais, Maitane Valdecantos, Marisa Salvador, Juan Angel Anta, Ainhoa Bilbao, todos ellos, destinatarios de nuestra admiración y agradecimiento: GRACIAS, FELICES FIESTAS Y FELIZ 2015



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**

**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Consejo Editorial / Argitalpen Batzordea

Decano Carlos Fuentenebro Zabala
Javier Bolado Zárraga
Ana Bermejo Arteagabeitia

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea

Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso Errasti

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Colaboradores / Laguntzaileak

César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzárrega Zamalloa

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

¿CONOCES
LOS
TRÁMITES
PARA
EMPRENDER
TU
NEGOCIO?

CONSULTA
CON TU
ABOGADO/A

LICENCIAS

CONTRIBUCIONES

PERMISOS

AYUDAS



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

2014ko abendua

06

BERRIAK

09

INFORMAZIOA

Administrazioarekiko auzibidearen hilobia

Lankidetzazuzenbidea

13

OTORDUA

14

GABONETAKO KONTUAK

16

JARDUNALDIAK

*Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari
buruzko hamahirugarren jardunaldi praktikoa*

22



BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

24

LEGEGINTZA BERRITASUNAK

26

KULTUR ERANSKINA



GOBERNUAK PROZEDURA KRIMINALAREN LEGEAREN ERALDAKETA ONETSI DU

Prozedura Kriminalaren Legearen aldaketak gehienez sei hileko inskruizio epea ezarri du, edo 18 hilekoa, ikerketa konplexua denean

Probintzia auzitegien epaiak bigarren auzialdian berrikusiko dituzte justizia auzitegiek, eta auzitegi nazionalaren epaiak, apelazio sala propioak

Berrikuspen errekurtsua eraldatu da. Errekurtsu hori beharrezkoa izango da Espainia kondenatzen duten GEEAko epaiak betetzeko

Ministroen Kontseiluak, Rafael Catalá Justizia ministroak proposatuta, joan den abenduaren 5ean, Prozedura Kriminalaren Legea (PKL) aldatzen duen Lege Organikoaren Aurreproiektua onetsi zuen.

Bizkortze prozesala

Lotura arauen aldaketa, gaur egun makroprozesu izenekoe-tan auziak pilatuta gertatzen den automatismoa saihesteko. **Araua izango da delitu bakoitzak auzi bakarra osatuko duela.** Lotura bidez pilatzeak zentzua izango du soil-soilik inguruabar tasatuak badaude eta auziak bereizita kontuan hartzea gomendagarria ez bada.

Egile ezagunik gabeko polizia-atestatuen eraginez ez dira eginbideak abiatuko epaitegietan. Gaur egun berehala artxibatzen dira, fiskalaren aurretiazko oniritzia izanda. Behar den moduko kontrol judiziala bermatzeko, polizia judizialak gordeko ditu eta epaile eta fiskalen eskura egongo dira.

Gaur egungo PKLn prozedurak instruitzeko ezarritako hila-beteko epe ez-eraginkorraren ordez epe errealistak ezarriko dira. Xede horretarako, erabaki beharko da prozedura bitarteko fasean jarraitzen den edo largespen aske edo behin-behinekoa ematen den. **Auzi errazek sei hileko epea izango dute, eta konplexuen instrukzioa 18 hilekoa izango da, eta epe hori luzatu ahal izango da antzeko gehiengo beste epe bat.**

Auzi konplexutzat hartuko dira talde edo **erakunde krimina-lek** egindakoak, **egitate zigorgarri ugari** dituztenak, **subjektu pasibo edo biktima ugari** biltzen dituztenak, irizpene-tan **dokumentazio ugari aztertzea edo analisi konplexuak** egitea eskatzen dutenak, jardunak **atzerrian** egitea eskatzen dutenak, **pertsona juridiko** pribatu edo publikoen **kudeake-ta** berrikustea eskatzen dutenak, edo **terrorismoari** lotuta daudenak.

Dekretu bidez onartzeko prozesua ezarri da (monitorio pe-nala). Horri esker, fiskalak egindako zehapen-proposamena epai irmo bihurtuko da, akusatuak, abokatu batek lagun-duta, ezarritako zigorra onartzen duenean. Prozesu hori ezarrita dago oso larria kez diren delitutetarako; delitu horien zehapena isuna edo espetxe-zigorra (lehenengoarekin ordeztu daiteke) izaten da. Besteak beste, horditasunaren eraginez bide-segurtasunaren kontra egindako delituak izan daitezke.

Berme prozesalak

Aurreproiektuaren arabera, justizia auzitegiek apela-zioan berrikusiko dituzte probintzia auzitegiek emandako epaiak, eta Auzitegi Nazionalako Apelazio Salak berrikusiko ditu auzitegi horrek emandakoak.

Espainiako antolamenduan bide bat ezarri da **Giza Eskubi-deen Europako Auzitegiak berrikuspen errekurtsuaren**

bidez Espainia kondenatzen duen epaietarako. Horren eraginez, aldatu egin dira salbuespen bide horretatik zigor epai bat aurkaratzeko dauden arrazoia.

Zigor prozesuetan abokatu laguntzarako dagoen eskubi-deari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/48/UE Zuzentarauari dagokionez gure antolamendura egindako transposizioa aprobetxatu da **defentsa eskubidearen arauketa osoa egiteko**, ez bakarrik pertsona fisikoentzat, baita prozesuaren jomuga izan daitezkeen erakundeentzat ere.

Horrez gain, **konfiskazio autonomoaren prozesua** arautu da. Horri esker, delitutik datozen ondasunen titulartasuna kendu ahal izango da, egilea epaitu ezin bada ere. Horren helburua da delitu-jardueratik eratorritako aktiboen berreskurapena eraginkorragoa izatea. Prozesu hori aplikatuko da delituak behin eta berriro egiten diren kasuetan, eta legez kontrako ondasunak hirugarrenei eskualdatu zaizkiela josten denean.

Ikerketa neurriak

PKLren 579. artikulua ordez, arau horren II. Liburuko VIII. Tituluaren idazketa berria ezarriko da, teknologia berriak barne hartuta. Lau atal izango ditu: telefono bidezko komunikazioak eta komunikazio telematikoak etetea; ahazko komunikazioak eta irudiak hartu eta grabatzea gailu elektronikoak erabiliz; jarraipena egiteko, kokatzeko eta irudiak hartzeko gailu teknikoak erabiltzea; eta informazioa modu masiboan pilatzeko gailuen erregistroa.

Arau orokorra da, **mota guztietako komunikazioen esku hartze edo erregistratze neurri bat adosteko, telefonoaren bidez edo komunikazio telematikoaren, logikoaren edo birtualaren beste edozein bide edo sistemaren bidez, baimen judiziala behar dela.** Epaileak onartuko du, neurriaren espezialitate, salbuespen, egokitasun, beharrian eta proportzionaltasun printzipioei jarraituz.

Baimena eman ahal izango da ikerketaren xedea delitu hauetakoren bat denean: gutxienez hiru urteko espetxe zigorra ezarrita dutenak; talde edo erakunde kriminal batek egindakoak; terrorismoari lotutakoak; eta tresna informatikoen bidez edo informazioaren edo telekomunikazioaren beste edozein teknologiaren bidez egindakoak.

Aurreproiektuaren arabera, elkarrizketa pribatuak eta irudiak jasotzean eta grabatzean inoiz ere ez dira hartuko pertsona ikertuak, atxilotuak edo espetxeratuak lanbide sekretua izan behar dutenekin dituen elkarrizketak, salbu eta horiek ere ikertutako egitateen eraginez auzipetuta daudenean. ●

ESPAINIAKO ABOKATUTZAK 20 URTE BETE DITU BRUSELAN

Bruselako Cervantes Institutuan 'Derechos Humanos, ¿todavía?' erakusketatik ikusgai egongo da 2015eko urtarrilaren 15era arte

Espainiako Abokatutzaren Bruselako ordezkariak 20 urte bete ditu Europar Batasuneko hiriburuan. Ospakizun horretara, Europako mundu juridikoko zenbait agintariz gain, bertaratu ziren Aldo Bulgarelli Europako Abokatutzaren Kontseiluko presidentea, Jonathan Goldsmith Europako Abokatutzaren idazkari nagusia, eta Oriol Rusca Europako Abokatutzaren Kontseiluan Espainiako ordezkariak duen presidentea eta Espainiako Abokatutzaren presidenteordea.

Ekitaldia Europako Abokatutzaren Kontseiluaren 2014ko azken osoko bilkuran egin da. Oriol Ruscak, Europako Abokatutzaren Kontseiluan Espainiako ordezkariak duen presidente moduan, ongi-etorria egin die Aldo Bulgarelli Europako abokatuen presidenteari eta Eurpoako abokatu-tzen gainerako ordezkariari. Ruscak, hitzaldian, azpimarratu ditu Espainiako ordezkariaren ibilbidea, ordezkariak Europako erakundeetan bi hamarkada hauetan izan duen eragina, eta Espainiako abokatuak Europan ahotsa izaten jarraitzearen beharra, Bruselan eztabaidatzen diren eraldaketa eta proiektuei aurre egiteko, hala nola datuen babesa, joan-etorri askea, e-justizia, trebakuntza, doako laguntza juridikoa eta tasa judizialak.

Ekitaldian, 20 urte hauek oroitzeko grabatua, Forges umoristak egindakoa, eman zaie Bulgarelliri, Jonathan Goldsmith Kontseiluko idazkari nagusiari eta José María Davó Fernández Kontseiluko presidente izandakoari.

Bestalde, ekitaldi horretan, doako justiziako espediente

elektronikoarengatik Europako Kontseiluak Espainiako Abokatutzari emandako 'Balanza de Cristal del a Justicia 2014' saria ere erakutsi dute. Espediente elektronikoa RedAbogacia Espainiako Abokatutzaren plataforma teknologikoak ezarri zuen, eta 2013an 524.487 herritarrek erabili zuten.

Espainiako Abokatutzaren ordezkariak Bruselan egindako 20 urteak ospatzeko, erakusketa bat

ere abian jarri da, 'Derechos Humanos, ¿todavía?' izenekoa. Espainiako umoregile grafiko ezagunenen binetak jasotzen ditu. Erakusketa Espainiako abokatuaren 40 elkargotan baino gehiagotan egon da. Jatorrizko binetak aurtengo urtarrian enkantean jarri zituzten, eta 6.000 euro baino gehiago lortuz iren. Diru hori Cáritasi eta Elikagaien Bankuari eman zitzaizen, Abokatutzako Giza Eskubideen 2013ko saridunei hain zuten. Bineta batzuegatik 300 euro baino gehiago ordaindu zituzten, eta guztiak hasieran zuten prezioa baino garestiago saldu zituzten (50 euro).

Ospakizunari begira, Twitter-en hashtag hau sortu da: [#20AbogaciaBruselas](#) ●



BAZKUNAREN PUBLIZITATE KANPAINA

Azaroan zehar Bazkunak publizitate kanpaina bat bultzatu du, hain zuzen ere, abokatuaren lana arazoak sortu aurretik komenigarria dela adierazteko.

Kanpaina horretarako tresna hauek erabili dira: batetik, Bizkaia osoan zehar hainbat tren geltokitan eta beste hainbat autobus geltokitan iragarkiak jarri dira; bestetik, irrati garrantzitsuetan publizitatea egin da. ●



AUZIA EUSKARAZ



AZAROAREN 27AN OSPATU ZEN AURTENGO AFARI KOLOKIOA

Bilboko Lope de Haro hotelean ospatu genuen aurten Batzordeak antolatzen duen afari kolokioa. 22 pertsona elkar-tu ginen bertan, afarira gonbidatua zegoen Zelai Nikolasekin solasean aritzeko.

Zelai Nikolas jurista Gure Esku Dago-ren bozeramaile da eta, besteak beste, erabakitze eskubidearen inguruan jardun genuen.

Batzordeko Jaime Eliasek eta Izarra Begoñak egindako aurkezpenaren ondoren, Gure Esku Dago ekimenaren gaineko informazioa eman zigun Zelaik afaltzen hasi aurretik. Tripa bapo bete ondoren, denon arten kolokio atsegina izan genuen, konturatu gabe gaueko 12:30ak jo zutelarik.

E-TOOLBARRA INSTALATZEKO ESKABIDEA ON-LINE EGITEKO AUKERA

Auzia Euskaraz-en web orrialdean dago aukera: e-Toolbarra zure bulegoko ordenagailuan izan nahi baduzu, formulario bat bete daiteke internet bidez.

Eskabidea jasotzean eurak jarriko dira zurekin harremanean eta hitzordua jarriko dute zure bulegora joateko. Dohainezko zerbitzua da.

JON LARREA ABOKATUARI ELKARRIZKETA ZUZENBIDEKO IKASKETAK ETA PRAKTIKA JURIDIKOKO MASTERRAREN INGURUAN



Bizkaiko Abokatuen Elkargoak antolatzen duen euskarazko Praktika Juridikoko masterreko ikasketa burua da Jon Larrea; horrez gainera, abokatua ere bada. Tarte bat egin digu bere lanaz, Zuzenbide ikasketen eremuan euskararen egoeraz eta bere esperientziak lasai hitz egiteko.

Auzia Euskaraz-eko web orrian daukazue elkarrizketaren bideoa ikusgai.

LANGILEAK TREBATZEN



Justizia Administrazioako langileen euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatu eta bultzatzeko asmoz, 2014/2015 ikasturterako OREKAON ikastaroaren B modulua eskaini zaie langileei. Urriaren 8an argitaratu zen onartutakoen behin betiko zerrenda eta hilaren bigarren hamabostaldian ekin zioten ikastaroari. 47 langilek hartu dute parte, aurreko deialdiko kopuru berbera.

AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUKO 4.000 ETIKETA KARGATU DITUGU ITZULPEN MEMORIAN



Berriki jarri da martxan Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren aplikazio informatiko berria.

Aplikazioan dauden etiketak gure itzulpen-memorian kargatu ditugu. Modu horretan, aplikazioaren erabiltzaileek euskaraz nabigatzean zalantzak argitzeko aukera izango dute.

Guztira 4.000 etiketa baino gehiago kargatu ditugu gure memorian "Aplikazioen Etiketak" arloan. ●

ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIBIDEAREN HILOBIA

Mikel López Echeverría

Abokatua

Gaur egun, zuzenbideko estatuaren josturak alde guztietatik lehertzeko puntuan daudenean ustelkeria dela bide, herritarrak, nekatuta, epaileei begira jarri dira. Ezpertzismoarekin begirutzen diete, horrenbeste zerbitzari publikoren traizioa ikusita, baina oraindik erakundeetan fede apur bat daukatela, talde politikoarekiko fede apur batekin. Posible da agintari batek baino gehiagok gaur egun botere banaketa hau madarikatzea, iraganean boterearen ikuspegitik banaketa guztiz onuragarria zela adierazi arren, hori bai, ondorio kaltegarriak sufritu aurretik: espetxeratze-aginduak, fiantzak ezartzea, galdeketa errukigabeak duela gutxira arte ukitu ezin zenarentzat. Eta horrela, alderdi politikoek, auzokoen plataformek, ikur

guztietako solaskideek eta elkarte judizialek eskatzen dute epaileei bitartekoak eman behar zaizkiela haien lana egin ahal izateko. Haien salatzen dutenez, ez da posible epaile gutxi batzuek aurre egin behar izatea horrelako iruzurrei, arrunkeariaren eta zentzugabekeriaren estoldetatik ihes egiten duen orgia horri. Ehunaka –edo milaka– pertsona daude erruztatuta, Erregearen familian zein aurpegi handiz trantsizioaren ostean sortutako Estatuaren salbatzaile moduan aurkezten zirenen artean. Beraz, bitartekoak behar dira epaileek horrenbeste lotsagabekeria bertan behera uzteko: ez dago *mantra* horren aurkako ahotsik, gizarteak galdutako konfiantza berreskuratzeko bide hori hautatu baitu.

IMQ Abogados

Tu salud

La salud lo es todo y con IMQ tienes todo para cuidarla

La mayor red sanitaria y la tecnología de vanguardia, **sin esperas**.

Seguro de accidentes para el titular de la póliza desde sólo 5,13 €/mes*

Exclusivo abogados

Desde **46,35 €** persona/mes

Con importantes descuentos:

- 5% para 5 o más beneficiarios
- 4% por forma de pago anual

IMQ

Tu seguro médico

902 311 902 agencia@imq.es www.imq.es

* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Oferta exclusiva para miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2014. R.P.S.: 143/12

Hala ere, nire uste apalean, nahi kolektibo horrek ikuspegi desegokia du, nolabait esatearren. Izan ere, ustelkeriaren konponbidea bilatu beharko litzateke herrialdea haien finka bihurtu dutenak epaituta zein egoera hori berriro ez errepikatzea saihestuta; prebenituta, zigortuta baino gehiago. Zigor arloko epaileek, ildo horretatik, medikuntzan kirurgialariek duten eginkizun berbera daukate: gaitza zabaldua dagoenean esku hartzea. Baina gizarteak, era berean eta batez ere, *lehen arretako medikuak* behar ditu, ustelkeriaren gaixotasuna kontrolatu eta *esku-hartze kirurgikoa* –kondena penala- saihesteko, gaitz horren alternatiba bakar eta azkena balitz bezala.

Prebenitu bai, baina nola. Ez politikarien eskutik; adibidez, Kontuen Auzitegia gaur egun arazoaren zati bat da, konponbidea baino gehiago, kargudun asko kontuei esker bizi baitira. Eta boterea eskuratu nahi duen hatuagari bakoitzaren zintzotasun aldarrikapenek dopina gaitzetsi eta gero frogen arabera errudunak ziren txirrindularienak besteko sinesgarritasuna dute. Ez: administrazioaren gehiegikeriak prebenitzeko profesional independenteak dira, *gauza publikoan* adituak direnak. Profesional horiei eskatu behar zaie administrazioa legearekin bat etortzea eta Konstituzioaren eta legeen araberako xedeak betetzea. “Bejondeizuela!”, entzungo dugu agian orduan, “eskakizun hori sistemaren atala da dagoeneko! Ez dago ezer berririk asmatzeko! Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa daukagu!” Baina, orduan, hori horrela bada, zergatik ez da inor oroitzen horretaz? Gizartea erabat murgilduta dago ustelkeriari bidea ixten dion formula bat asmatzen, baina zergatik inork ez du jotzen administrazioarekiko auzien jurisdikzioa? Nire ustez, botere politikoak ahal izan duen guztia egin baitu jurisdikzio hori hutsaltzeko. Edo, bestela esanda, botere politikoak ez duelako nahi inork kontrolatzea eta hori lortzeko baliabide guztiak jarri dituelako. Beraz, ez da arraroa boterea duenak botere horretan blindatu nahi izatea, nahiz eta jarrera horrek goizero entzuten ditugun zintzotasun eta gardentasun aldarrikapenak hipokrita bihurtu. Aitzitik, deigarria da egoera hori egunero bizi dugun eragile juridikoek ez salatzea, zigor arloko jurisdikzioarentzat, eta zehatzago esanda, Auzitegi Nazionalako organoetarako bitartekoak erreklamatzeko dituzten elkarte judizialak barne hartuta.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eraginkortasun eza berresten duen datua eztabaida ezina da: epaitegiak ia-ia hutsik daude, ez baitago prozedura berririk. Eta horren arrazoiak bilatzerakoan ere adostasuna dago: azken lege-aldaketek gehitu zuten kostuak ezartzea mugaguneratzearen irizpidea oinarri hartuta eta tasa udizialak ordaintzeko eskakizuna; ordutik, herritarrek, administrazioaren aurka auzitan aritu behar dutenean, epaileengandik ihes egin dute eta Amabirjinari otoitz egin diote: “Amabirjina, amabirjina, nagoen bezala geratu nahi dut”. Ezin da bestela izan: inori burutik pasatzen zaio auzitan aritzea tasa oso handiak ordaindu behar direnean, eta gainera, kostuak ordaintzeko arriskua duenean (jurisdikzio honetako gaitzespen ehunekoak oso handiak dira)? Kontuan hartu behar da kostuak ezartzearen on-

dorioak ez direla berdinak jurisdikzio zibilean, hor armen berdintasun prozesala baitago; administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, aldiz, administrazioak gaitzen badu, kostuak herritar guztiok ordaintzen ditugu, eta administrazioak irabazten badu, kostuak erruztatuak ordaintzen ditu. Baina, azken datuen arabera, (2013ko estatistika judiziala), jurisdikzio horretan, gaitzespenen ehunekoak %75 da demandei dagokienez, eta %73 apelazioei dagokienez. Beraz, gai horretan ez dago zalatnazarik: administrazio bidegabekeria baten biktimak Amabirjinarengana joko du epailearengana baino lehenago.

Gure jurisdikzioa akastuna zen eraldaketa horien aurretik; izan ere, administrazioari lehentasunezko kokapena ematen zaio, eta hori dela bide, administrazioa ezin da behar den moduan kontrolatu. Eta horren ardura zuten legeak eta legearen interpreteak. Adibidez, funtzionario publikoen txostenek egiazkotasun eta asmatze presuntzioa zeukaten alderdiko aditu frogen aurrez aurre. Adibidez, herritarren aldeko epai urriak gauzatzea denboran etengabe luzatzea baimenduz. Adibidez, administrazioaren galdeketa idatziz egitea ezarritik. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren funtzionamendua ez zen ereduakoa eskatzen zitzaien kontrol publiko hori egikaritzeko, baina orain, aipatutako bi eraldaketak –kostuena eta tasena- azken ukitua izan dira. Berriro ere esango dut epaitegietan ez direla gai berriak sartzen; edo, gauza bera esanda, Konstituzioaren arabera administrazioaren jarduna kontrolatzeko ardura duten organoek ez dute halakorik egiten. *Cui prodest?* Erantzuna argia da: gaur egungo egoeraren onuradun bakarra administrazioa da. Eta, hain zuzen ere, administrazioak sustatu ditu beharrezko eraldaketak egoera horrelakoa izan dadin, erruztatuaren kaltetan. Horren emaitza da, gaur egun, administrazio publikoak de *facto* ez duela benetako kontrolik. Egoera onartezina da.

El Rotoren bineta batetik “administrazioarekiko auzibidearen hilobia” izenburua hartuko dut. Kazetari grafiko bikainak labur-labur eta argi marraztu du jurisdikzioaren egoera, eta auzitegiatiko korridoreetan euliak entzun egiten direla erakutsi du. Hori horrela izanda, eragile juridikoek erantzuten dute jurisdikzioak ez duela ezer kontrolatzen, eta aldi berean, herritarrek harritu egiten gara kontrolik ez dagoela ikusita, hori dela bide ustelkeria herrialdeko lehen arazoa bihurtu baita. Nire ustez, ezinbestekoa da guztiok salaketa egitea, gauzen gaur egungo egoerari buelta emateko. Bide berriak ni noranzko soilik izan ditzake: edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duten legeak aldatzen dira –mugaguneratzearen ondorioz kostuak ezartzearen irizpidea eta gaur egungo tasa judizialak ordaintzeko eskakizuna barne hartuta-, edo jurisdikzio horren gastua aurreztu eta bertako epaileak eginkizun praktikoagoetara bideratzen ditugu. Adibidez, zigor arloko jurisdikzioa eraman ditzakegu, batzuek konfiantza handia baitaukate horretan. Hau da, jatorrizko jurisdikzioak administrazioa behar den moduan kontrolatzeko izan duen gaitasunik ezak eragindako bidegabekeriak zigortzen has daitezke. ●

LANKIDETZA ZUZENBIDEA: GATAZKAK EBAZTEKO METODO BERRIA

Jose Juan Orbe Oleaga

Abokatua (*abogaciaartesana.com*)

Duela urte batzuk, lankide beterano batekin hitz egin nuen gure lanbidearen xedeari buruz. Berak argi zeukan; gure lana gure bulegoetara hurbiltzen ziren pertsonen arazoak ebaztea zen. Erantzun horrek nahasi egin ninduen, eta orain aitortzen dut, sinpleegia iruditu zitzaidan gure lanbidea definitzeko. Lankideak, nire alderdi prozesala ezagutzen zuenez, adierazi zuen, beste askotan bezala, legeak, jurisprudenzia eta prozesu judizialek ezin dietela erantzunik eman bezeroen erantzunei. Hori dela eta, beste bitarteko, beste erreminta eta beste lan-metodo batzuk erabili behar ditugu.

Gaur, zuzenbide laguntzaileari buruz idaztean, elkarrizketa hori daukat buruan. Zuzenbide laguntzailea gatazkak ebazteko metodoa da, eta duela gutxi iritsi da gure lurraldera.

Zuzenbide laguntzailearen jatorriak eta garapena. Minnesotatik Euskadira.

Zuzenbide laguntzailea 90eko hamarkadan sortu zen Minnesotan (EEBB), familia zuzenbidean espezializatutako abokatu batek praktikan jarritako ideia batetik. STU WEBB deitzen zen abokatua.

Ipar Amerikako lankide hori nekatuta zegoen ezkontzako auziak ebazteko auzitegietara jotzeaz. Lan-formula berriak bilatu eta praktikan jarri ondoren, erabaki drastiko bat hartu zuen, gaur egun herrialde anglosaxoietan COLLABORATIVE LAW esaten zaionaren jatorria. Epaiketaz kanpoko bideak arrakastarik lortzen ez zuenean kasua uzteko konpromisoa hartu zuen, eta horren ondoren, beste lankide batek hartuko zuen auzitegietan defentsa egikaritzearen ardura. Ez da zaila imajinatzea konpromiso horrek zer aldaketa ekarri zuen abokatu horrek lanbidean aritzeko zuen moduan.

Beste lankide batzuek ere interesa agertu zuten, eta praktikan jartzeko eta gogoeta egiteko taldeak eratu ziren, eta horietan beste esparru batzuetako profesionalak ere sartu ziren. Horrela sortu ziren gaur egungo zuzenbide laguntzailearen oinarriak.

la hamarkada bat igaro ondoren, 1999an, profesional horiek biltzen zituen lehen elkarteak sortu zen, gaur egungo "International Academy of Collaborative Professionals (IACP)" izenekoaren aurrekaria. Elkarte horretan, praktika laguntzaileako printzipioak, eskatzen den prestakuntza eta metodo hau praktikan jartzeko tresnak eta prozesuak biltzen dira

Zuzenbide laguntzailea Estatu Batuetatik Europa osora hedatu zen mundu anglosaxoiaren bidez, eta hortik Europako gainerako herrialdeetara zabaldu zen, baita herrialde mediterraneoetara ere, hala nola Italiara eta Frantziara (gure kultura-esparrutik hurbil daude). Alboko herrialdean, elkarteak 2007an sortu zen, eta ordutik 1.200 abokatu baino gehiago trebatu ditu metodo honetan.

Euskadira 2013an iritsi da, Arabako María José Anitua lankidearen eskutik. Gaur egun, María José Anitua "Euskadiko Zuzenbide Laguntzailearen Elkarteko (EZLE)" lehendakaria da. Hain zuzen ere, elkarte hori Estatu osoan IACPren estandarrekin sortutako lehen elkarteak da.

Bezeroa: alderdi aktiboa arazoaren ebazpenean

Zuzenbide laguntzailea "Gatazkak ebazteko metodo alternatibo" izeneko multzoan dago. Metodo horien guztien funtsezko ezaugarria da bezeroak protagonismo aktiboa duela gatazkarako aukerak eta konponbideak bilatzeko orduan. Bezeroak kasuaren erantzukizun osoa ez du aboka-

ABOKATUA - PROKURADOREA. BILBOREN ERDIAN DAGOEN BULEGOA KONPARTITZEKO ESKAINTZEN DA. Garajeko partzela aukeratu. Prezioa negoziagarria. Rafaz galdetu: 696.126.006.

BULEGOA, altzairuz hornitua, ALOKAGAI, abokatu bulego baten barruan, eraikin ikusgarrian, Bilboren erdian (Urquijo Zumardia, 31). Deitri telefono honetara: 650522749.

**IRAGARKI
TAULA
TABLÓN DE
ANUNCIOS**

tuaren esku uzten; horren ordez, abokatuarekin, beste alderdiarekin eta gainerako profesionalekin batera lan egiten du konponbideak bilatzeko.

Lana eta negoziazioa talde diziplina anitzeko taldeetan

Zuzenbide laguntzailearen oinarrizko beste ezaugarri bat da lana eta negoziazioa taldean egiten direla. Hau da, lana eta negoziazioa lau alderditako bileretan egiten da, eta horietan, mahai baten inguruan esertzen dira abokatuak eta bezeroak, eta prozesu hauetan ohikoak diren beste batzuk ere egon daitezke: aditu neutralak.

Aditu neutralak esparru askotako profesionalak dira (ekonomistak, notarioak, arkitektoak, psikologoak, komunikazio arlokoak, medikuntza arlokoak, ingeniariak, etab.). Guztiek metodo laguntzailearen inguruko prestakuntza jaso dute, eta alderdiek ados jarrita kontratatzen dituzte haien espezialitatekoak diren gaitan erreferenteak izan daitezen, arazoa ondo ebazteko konponbideak, aukerak eta alternatibak bilatzen laguntzeko. Aditu neutralen esku-hartzeari esker (gure aditu forentsearekin alderatuta desberdintasun atzuk ditu), zuzenbide laguntzailea diziplina anitzeko lan-metodoa da berez.

Abokatu laguntzailearen eginkizuna eta auzibideari uko egitea

Abokatu laguntzailearen zereginean aldaketa garrantzitsua egiten da, hitza ematen baitzaie bezeroei eta adituei, eta lehen esparru hori abokatuaren lanbide jardunera mugatuta baitzegoen. Irekitze horrek (kontrakoa pentsatu arren), abokatuaren protagonismoa murriztu beharrean handitu egiten du, eginkizun eta esangura gehiago ematen dio. Abokatuak lan sortzaile eta malguagoa egin dezake, bere eginkizunaren zorrotasuna alde batera utzi gabe.

Beste aldean, horrela esan ahal bazazio, abokatu laguntzaileek negoziazio-prozesua ondo amaitzen ez bada bezeroak auzitegietan ordezkatzeari egiten dioten ukoa da. Prozesuaren hasieran egindako uko horrek eragiten du eztabaidarik handiena. Batzuentzat oztopo izan daiteke metodo hau garatzeko, baina beste batzuentzat uko hori ezinbesteko baldintza da metodo laguntzailea benetan eraginkorra izateko eta bezeroen eta lankideen benetako negoziazio-gogoaren inguruan konfiantzarik eza saihesteko.

Gardentasuna eta konfidentziasuna metodo laguntzailean

Zuzenbide laguntzailean, gardentasuna eta konfidentziasuna oso lotuta daude; gardentasuna egitateak, datuak eta dokumentuak ematerakoan, bi alderdiek informazio bera izan dezaten; eta konfidentziasuna prozesuan eta gehitzen diren datu eta dokumentuetan. Datu eta dokumentu hroik ezin dira prozesu laguntzailetik kanpo erabili, eta horretarako, hainbat mekanismo jartzen dira abian.

Profesional laguntzaileen prestakuntza

Prestakuntza etengabea ezinbestekoa da gizartean eztabaidak ebazteko metodo berri honetarako gaituta dauden profesionalak eskaintzeko.

Gaur egun, Euskadiko Elkartetik profesional laguntzaileak trebatzeko lana egiten ari dira. Profesional gehienak abokatuak dira. Negoziatorako Harvard metodoan eta IACPren estandarren arabera zuzenbide laguntzailean trebatutako profesionalen lehen taldea kalean dago. Profesional horiek trebatzeko, Ipar Amerikatik elkarte horretako trebatzaileak etorri dira gurera.

Laguntza euskal erakundeetatik

Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak hasiera-hasieratik zuzenbide laguntzailea babesten du, eta oraintsu, Eusko Legebiltzarrak metodo laguntzailea babesteko mozioa aho batez onetsi zuen.

Orain, bide judizialaren aurreko bide alternatibo horrek gure gizartean zein harrera izango duen jakin behar dugu, eta zein izango den gure erantzuna, kolektibo eta profesional moduan.

Ziurrenik, gure lankide beteranoak argi izango du, eta ekimen hau interes, jakingura eta gogoarekin hartuko du. Ekimenaren helburua pertsonen arazoak ebaztea da, besteak irabazi edo galdu dezan bilatzea baino. Horretarako, lan sortzaile eta laguntzailea sustatzen da bezeroen eta profesionalen artean, guztien interesen mesederako.

Eta poetak esan zuen moduan, *bidea luzea izan bedi.* ●

TASKAK ETA TABERNAK

José Luis Alegre - Abokatua

Zalantzarik gabe, gure taska eta tabernak asko aldatu dira Bizkaian azken azken hiruzpalau bosturtekoetan. Eta ez naiz ari apaindurei buruz –neurri batean, oraindik ere faltan botatzen dut leku horietako soiltasun zaharkitua–, eskainitako produktuen kalitateari buruz baino. Izan ere, duela urte batzuk ardo zakarrak eta pintxo gutxi batzuk eskaintzen zituzten –kasu askotan, egiturari eta sinpletasunari erreparatuta, atzerriko tapen antza zuten-. Horren guztiaren erakusgarri, eta gutako bakoitzak aipatzeko moduko establezimendu bat baino gehiago ezagutzen duela jakinda, aipatuko ditugu ardoen hautaketa zaindua eta ohiz kanpoko pintxoaren barra eskaintzen dituzten lokal batzuko –kontuan hartuta desberdinak direla Bilboren erdialdeko lokaletan dauden eskaintzak eta alboko herri edo auzo batzuetan kokatutako eskaintzak–.

Gure ibilbidea “La Ramona” taskan hasiko dugu, Bilboren erdialdeko Jado plazan (Colón de Larreategui 37). Barrualdean, ardoen eskaintza zabala aurkituko dugu, Borgoina dotoreak, upategi garaikiderik berri-tzaileenetik sortutako azken Errioxa ardoa, eta baita Ribera, Burdeos, Borgoina, Rías Baixas, Valdeorras, Penedés, etab. ere. Prezioek ondo erantzuten diote eskainitakoaren kalitateari. Barra txikia da, baina oso fina, eta kalitate handiko hamar pintxo inguru ditu. Horri esker, pintxo horiek kontu handiz egiten dira, eta etengabe, bezeroei baldintza ezin hobeetan eskaintzeko beti. Barraren osaera egunean lau aldiz aldatzen da, ordutegi bakoitzeko beharrianetara egokitzeko.

Bilboko erdialdea utzi eta auzo jendetsuenetako batera joango gara, Santutxura. Bertan, “Bastertxu” taberna oso aipagarria da (Ricardo Bastida plaza 1, Karmelo kalearen ondoan). Asteburuetan, goizetan, pintxoaren barra bikaina du. Pintxoak txikiak diren arren, prestaketa bikaina da, eta horietako batzuk unean bertan egiten dira –hala nola, inguru horretako pintxoaren lehen lehiaketan ohorezko saria irabazi zuena-. Lehengai hautatuak, irudimen aparta –sukaldea handiagoa balitz eta bitarteko gehiago izango balituzte, ez dakigu zer egiteko gai izango lirartekeen-, eta ingurueta

ardoen batez bestekoa gainditzen duen dozena erdi ardoen hautaketa. Hori guztia dela eta, santutxutar askorentzat taska honetan gelditzea nahitaezkoa da udazken goiz bateko eguzki-izpiez gozatzen duten bi-



“La Ramona” Plaza Jado
calle Colón de Larreategui 37

“Bastertxu” Santutxu
Plaza Ricardo Bastida 1,
junto a la calle Carmelo

“Tximintxe” anteiglesia de San Miguel de Basauri
calle Basauri 10

“Gure Etxea” Romo
calle Caja de Ahorros 14

tartean haien buruari omenaldi txiki bat egiteko.

Hiriburutik aldentuta, pauso gutxi emanda, Basaurira iritsiko gara. Bertan “Tximintxe” taberna dago (Basauri 10). Pintxoaren barra egundokoa da, kopuruari eta kalitateari erreparatuta. Gure probintziako osoenetako bat da, eta horregatik, azken urteetan, herriko eta probintziako pintxoaren txapelketetan zenbait txapel lortu dituzte. Hemen ere, kategoria eta kalitate handiko ardoen eskaintza daukagu, gure inguruan dastatu ohi diren ardogintza inguruetaoak. Hori dela eta, taberna honetan aurkitzen duguna baliteke udalerriko eskaintza gastronomikorik onena izatea.

Amaitzeko, Romoko “Gure Etxea” taberna zaharrera joko dugu (Caja de Ahorros 14). Taberna horren lema aipatutako tasketako lemarekin bat egiten du: pintxoaren barra zabal eta erakargarria, urteek aurrera egin ahala eskaintza gastronomikoa orraztu duena –gainera, dozena erdi mahaitan prestaketa handiagoa duten platerak eskaintzen ditu, hala nola, egundoko itxura duten txuletoi goretsiak, eta, beste maila batean, hanburgesa klasiko eta errotuak-. Ardoen eskaintzan, hautaketa zaindu eta arretatsua ikus daiteke. Betiere, erreferentzien kalitatea hautatzen dute, taberna honen izen ona mantendu eta handitzeko. Gaur egun, taberna belaunaldi berri eta aktiboaren esku dago. ●



GABONEI BURUZKO OHARRAK: TRADIZIOEN JATORRIAK

Gabonetako zurrumbiloan murgilduta gaude, argiak, zaratak, jakiak... eta tradizioak, urtez urte errepikatzen ditugunak. Gabonetan errorik sakonenak dituzten Gabonetako tradizio batzuen jatorria kontatuko dizuegu, batzuk oso zaharrak baitira, eta beste batzuk ez horrenbeste; izan ere, jakiteak inoiz ez du kalterik egingen:

GABONETAKO LOTERIA

Horren jatorria Cádizeko Gorteen aldia da. Indietako Ganberako ministroak pentsatu zuen loteria “altxor publikoaren sarrerak handitzeko bitartekoa aproposa zela, zergapekoak estutu gabe”. Lehen zozketa 1812ko abenduaren 18an egin zen.

‘Loteria Modernoa’ deitu zioten Esquilacheko markesak abiatutako ‘Loteria Primitibotik’ bereizteko. ‘Gabonetako zozketa’ izena 1892ko abenduaren 23an jarri zioten, eta bost urte geroago, izen hori txarteletan agertzen zen.

Lehenengo zozketatik, San Ildefonsoko haurrek abestu zituzten zenbakiak. 1913ra arte, zenbakiak paperean idatzita zeuden. Data horretatik aurrera, bonboen eta zurezko pilotatxoeren sistema ezarri zen, eta sistema hori erabiltzen da gaur egun ere.

Gaur egun, abenduaren 22an, ilusioa Espainiako etxebizitzetan sartzen da Gabonetako aparteko zozketari esker. Zozketa horretan, gehieneko saria 4 milioi eurokoa da.

Baina abenduaren 22an ezer gabe geratzen direnek, beste data bat izan dezakete buruan: urtarrilaren 6a, Erregetako Loteriaren zozketa eguna. Zozketa hori 1941an jai ozen, baina 1966an jarri zioten gaur egungo izena, hain zuzen ere, Erregeen Eguna ospatzen den egunarekin bat egiten duelako.

GABON KANTAK

Gaztelaniaz, “villancico” hitza hiribildutako biztanleei emandako ‘villano’ (bilau) hitzetik dator. Izen hori ematen zitzaien noble edo kaparengandik bereizteko. Espainian, gabon-kanten jatorria poesia mota

bat da, batez ere Gaztelan lantzen zena, zejelaren antzekoa. Espainiako musulmanen herri konposizio edo metrika bat da. (Adibidez: “Abel Guzmámen kantutegiko zejelak”). ‘Villancico’ deitu aurretik, “villancejos” eta “villancetes” ere esan zitzairen.

Dopaje deportivo y código mundial antidopaje, Vicente Martínez, Rosario de (Dir.); (Otros) Reus (Madrid)

ZUZENBIDE POLITIKOA

Amparo constitucional y proceso civil, Montero Aroca, Juan; Flors Maties, José Tirant lo Blanch (Valencia)

ZUZENBIDE PROZESALA

Practicum proceso civil 2014, Toribios Fuentes, Fernando (Ed. lit.); (Otros) Aranzadi (Cizur Menor)

Tratado de derecho procesal penal, Rojo, José Vicente Tirant lo Blanch (Valencia)

Las intervenciones telefónicas en el proceso penal, Casanova Martí, Roser Bosch (Barcelona)

Comentarios a la Ley de Enjuiciamiento Civil, Toribios Fuentes, Fernando (Dir.); (Otros) Lex Nova (Valladolid)

Estudios de justicia penal, Armente Deu, Teresa Marcial Pons (Madrid)

FILOSOFIA ETA DEONTOLOGIA

El trabajo de la justicia: ética y deontología jurídica, Torres - Dulce Lifante, Miguel Angel Colex (Madrid)

Memento práctico acceso a la abogacía 2014 - 2015, López Álvarez, M^a José (Dir.); (Otros) Francis Lefebvre (Madrid)

BESTEAK

Contratos civiles, mercantiles, públicos, laborales e internacionales, con sus implicaciones tributarias, Izquierdo Tolsada, Mariano (Dir.) Aranzadi (Cizur Menor)



DERECHO FISCAL

- **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 123/2014, de 11 de noviembre**, por el que se modifican varios Reglamentos tributarios. (BOB 18-11-14)

Las modificaciones introducidas afectan al régimen de obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia (se adapta la normativa sobre asistencia mutua al intercambio automático de información), al Impuesto sobre Sociedades (se recupera el incentivo no tributario de bonificación en la cotización a la SS respecto para el personal investigador y se establece la compatibilidad de las bonificaciones con la aplicación de las deducciones por I+D+i en determinados supuestos. También se clarifica el método de aplicación de los límites de reducción de la base imponible establecidos para la reserva especial para nivelación de beneficios y para la reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva), al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (se corrigen errores de transcripción y referencias normativas) y a las obligaciones de facturación.

- **Ley 25/2014, de 27 de noviembre, de Tratados y otros Acuerdos Internacionales.** (BOE 28-11-14).
- **Ley 26/2014, de 27 de noviembre**, por la que se modifican la Ley 35/2006, de 28 de noviembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Texto Refundido de la Ley del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2014, de 5 de marzo, y otras medidas tributarias. (BOE 28-11-14).
- **Ley 27/2014, de 27 de noviembre**, del Impuesto sobre Sociedades. (BOE 28-11-14).

Esta Ley, que entrará en vigor el 1 de enero de 2015 (salvo las disposiciones finales 4ª a 7ª, que entrarán en vigor el 29-11-14), deroga todas las disposiciones que se opongan a lo establecido

en ella y, particularmente, el Texto Refundido de la Ley del Impuesto de Sociedades, aprobado por Real Decreto Legislativo 4/2004, de 5 de marzo.

- **Ley 28/2014, de 27 de noviembre**, por la que se modifican la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, la Ley 20/1991, de 7 de junio, de modificación de los aspectos fiscales del Régimen Económico Fiscal de Canarias, la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales y la Ley 16/2013, de 29 de octubre, por la que se establecen determinadas medidas en materia de fiscalidad medioambiental y se adoptan otras medidas tributarias y financieras. (BOE 28-11-14).

DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

- **Orden de 29 de octubre de 2014**, del Consejero de Empleo y Políticas Sociales, por la que se establece el procedimiento de concesión y de pago de la ayuda económica a las mujeres víctimas de violencia de género, prevista en el artículo 27 de la Ley orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de medidas de protección integral contra la violencia de género. (BOPV 19-11-14).

OTROS

- **Ley 21/2014, de 4 de noviembre**, por la que se modifica el texto refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, y la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Las medidas que regula la presente Ley se agrupan en tres bloques: la profunda revisión del sistema de copia privada, el diseño de mecanismos eficaces de supervisión de las entidades de gestión de los derechos de propiedad intelectual y el fortalecimiento de los instrumentos de reacción frente a las vulneraciones de derechos que permita el impulso de la oferta legal en el entorno digital.

Para ello, se traspone al ordenamiento jurídico español del contenido de las Directivas 2011/77/UE y 2012/28/UE y se modifican el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual y dos artículos de la LEC (256.7.10º y 11º y 259.4).

- **Ley 23/2014, de 20 de noviembre**, de reconocimiento mutuo de resoluciones penales en la Unión Europea. (BOE 21-11-14).

Esta Ley establece que, en aplicación del principio de reconocimiento mutuo de resoluciones penales en el espacio de libertad, seguridad y justicia de la Unión Europea, las autoridades judiciales españolas que dicten una orden o resolución incluida dentro de la regulación de esta Ley, podrán transmitirla a otro Estado miembro para su reconocimiento y ejecución.

Asimismo, en aplicación del principio de reconocimiento mutuo de resoluciones penales, las autoridades judiciales españolas competentes reconocerán y ejecutarán en España dentro del plazo previsto, las órdenes europeas y resoluciones penales previstas en esta Ley cuando hayan sido transmitidas correctamente por la autoridad competente de otro Estado miembro y no concurra ningún motivo tasado de denegación del reconocimiento o la ejecución.

- **Resolución de 17 de noviembre de 2014**, de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas, por la que se establece el calendario de días inhábiles en el ámbito de la Administración General del Estado para el año 2015, a efectos de cómputos de plazos. (BOE 27-11-14).

ZERGEN ZUZENBIDEA

► **Bizkaiko Foru Aldundiaren 123/2014 Foru Dekretua, azaroaren 11koa**, honen bidez, **zenbait zerga-araudi aldatzen dira** (BAO, 14-11-18).

Foru dekretu honek zenbait aldaketa ezartzen ditu eta aldaketok eragina dute Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalen erregimenean (elkarren laguntzari buruzko arautegia informazioaren trukatzeko automatikora egokitzen da), eta Sozietateen gaineko Zergan (batetik, berreskuratu egiten da Gizarte Segurantzako kotizazioa hobera, zerga-pizgarria ez dena, ikertzaileei dagokienez, eta, bestetik, errege dekretu horrek ezartzen du kasu batzuetan hobariok bateragarriak izango direla Sozietateen gaineko Zergan I+G+B dela eta aplikatzen diren kenkariekin; xedapen gehigarri bat gehitzen da eta kasu honetan helburua da argitzea zer metodo erabili behar den mozkinak nibelatzeko erreserba bereziraiko zein ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba bereziraiko ezarri diren zerga-oinarriaren mugak aplikatzeko). Foru dekretu honek ere zenbait aldaketa ezartzen ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (inskripzioan nahiz araudi-erreferentzietan dauden zenbait oker zuzentzen dira) eta fakturazio-betebeharretan.

► **25/2014 Legea, azaroaren 27koa, Nazioarteko Itun eta bestelako Akordioena** (BOE, 14-11-28).

► **26/2014 Legea, azaroaren 27koa**, Horren bidez, **aldatu egiten dira** azaroaren 28ko 35/2006 Legea, **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategina**, martxoaren 5eko 5/2014 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia, eta **tributu arloko beste neurri batzuk** (BOE, 14-11-28).

► **27/2014 Legea, azaroaren 27koa, Sozietateen gaineko Zergarena** (BOE, 14-11-28).

Esta Ley, que entrará en vigor el 1 de enero de 2015 (salvo las disposiciones finales 4ª a 7ª, que entrarán en vigor

el 29-11-14), deroga todas las disposiciones que se opongan a lo establecido en ella y, particularmente, el Texto Refundido de la Ley del Impuesto de Sociedades, aprobado por Real Decreto Legislativo 4/2004, de 5 de marzo.

► **28/2014 Legea, azaroaren 27koa**, horren bidez, **aldatu egiten dira** abenduaren 28ko 37/1992 Legea, **Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa**, ekainaren 7ko 20/1991 Legea, **Kanarietako araubide ekonomiko fiskalaren alderdi fiskalak** aldatzen dituena, abenduaren 28ko 38/1992 Legea, **Zerga Bereziarena**, eta urriaren 29ko 16/2013 Legea, **ingurumen fiskalitatearen arloko neurriak eta tributu eta finantza arloko beste neurri batzuk** ezartzen dituena (BOE, 14-11-28).

LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ZUZENBIDEA

► **Agindua, 2014ko urriaren 29koa**, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera **genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura** ezartzen duena (1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integralko neurri buruzkoa) (EAAO, 14-11-19).

BESTEAK

► **21/2014 Legea, azaroaren 4koa**, horren bidez, **aldatu egiten dira Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina**, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta **Prozedura Zibilar buruzko urtarilaren 7ko 1/2000 Legea**.

Las medidas que regula la presente Ley se agrupan en tres bloques: la profunda revisión del sistema de copia privada, el diseño de mecanismos eficaces de supervisión de las entidades de gestión de los derechos de propiedad intelectual

y el fortalecimiento de los instrumentos de reacción frente a las vulneraciones de derechos que permita el impulso de la oferta legal en el entorno digital. Para ello, se traspone al ordenamiento jurídico español del contenido de las Directivas 2011/77/UE y 2012/28/UE y se modifican el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual y dos artículos de la LEC (256.7.10ª y 11ª y 259.4).

► **23/2014 Legea, azaroaren 20koa, Europar Batasunean zigor arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzkoa** (BOE 14-11-21).

Esta Ley establece que, en aplicación del principio de reconocimiento mutuo de resoluciones penales en el espacio de libertad, seguridad y justicia de la Unión Europea, las autoridades judiciales españolas que dicten una orden o resolución incluida dentro de la regulación de esta Ley, podrán transmitirla a otro Estado miembro para su reconocimiento y ejecución.

Asimismo, en aplicación del principio de reconocimiento mutuo de resoluciones penales, las autoridades judiciales españolas competentes reconocerán y ejecutarán en España dentro del plazo previsto, las órdenes europeas y resoluciones penales previstas en esta Ley cuando hayan sido transmitidas correctamente por la autoridad competente de otro Estado miembro y no concurra ningún motivo tasado de denegación del reconocimiento o la ejecución.

► **2014ko azaroaren 17ko Ebazpena**, Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzarena. Horren bidez, **egun baliogabeen egutegia ezartzen da Estatuko Administrazio Orokorren esparruan 2015. urterako**, epeak zenbatzearen ondoretarako (BOE, 14-11-27).



CANCIONES DE AMOR A QUEMARROPA



Egilea:
Nickolas Butler

Itzulpena:
Marta Alcaraz

Libros del Asteroide, 2014
336 or.; 21,95€
(e-book 12,99 €)

Aldizkarietan argitaratu diren kontakizun eta lankidetzak kontuan hartu gabe, *“Canciones de amor a quemarropa”* da Nickolas Butler-en (Pensilvania, 1961) lehendabiziko lan handia. Ez da eleberririk irakurri horietakoa, inondik inora, baina gauza interesgarri ugari ditu. Baita magia dezente ere. Izan ere, gaztarora eramaten zaitu egileak, modu bikainean, eraman ere. Irakurri ahala pelikulak, liburuak eta abestiak gogora ekartzen dizkizu eleberririk horietakoa da. Nire kasuan, gainera, ez edozelakoak. Barruraino sartu izan zaizkidan pelikula, liburu eta abestiak etorri zaizkit burura. Adibide zehatzak jartzearren, *“Canciones de amor a quemarropa”* irakurtzeak, *Beautiful girls* edo *El reencuentro* bezalako filmek sorraraz lezaketen pareko malenkonian eragin dute nigan. Kasu horietan bietan, izan ere, sentsibilitate handiz lantzen dira adiskidetasuna edota denboraren iragatea bezalako gaiak. Urte luzez elkar ikusi egon ostean berriz topo egin, eta iraganeko bizipenei horiei betirako lotuta daudela egiaztatzen duten lagunak. Bestalde, eleberririk badu halako musika giro bat. Eta ez soilik gaiari dagokionez (haurtzarora iragan zueneko herrira itzuli de rock izarra), baita duen erritmoagatik ere. Istoriok aurrera egin ahala, doinu desberdinak zetozkidan burura. Bob Dylan-en *Girl of the North Country*, edo Nacha Pop taldearen *La chica de ayer*, esate-

rako. Abesti horietan bezala, ia-ia amodio izatera iritsi ziren harremanez hitz egiten du Butler-ek. Hor nonbait, liboan geratu ziren amodioak, baina bizi osoa baldintzatu zutenak. Erreferentzia literarioak ere aipatu behar. *“Canciones de amor a quemarropa”* irakurriz gero, izan ere, ez batera erraza Nick Hornby edo Jonhatan Franzen bezalakoekin ez gogoratzea.

Jende askoren barrenak ukituko dituen eleberririk idatzi du Nickolas Butlerrek. 70. eta 80. hamarkadetan jaio ginenok besteek baino gehiago gozatuko dugu, seguru asko. Eleberririk aproposa da guretzako. Gure belaunaldiko erreferentziaz josita dago. Gaztarora dakarkigu burura. Eta gustukoa dugu hori. Halako enpatia bat sorrazten du, gauza guztiak ulergarri bilakatzeraino. Ezinezkoa da uneren batean zeure burua eszenaren batean ez irudikatzea. Orientazio eza, desira, heldutasuna, atsekabea eta, batez ere, munduan dagokizun lekua... Bai, munduko leku hori da eleberririk honen benetako altxorra. Horixe da *“Canciones de amor a quemarropa”*-ren benetako mezua, adiskidetasunari egindako erreferentziaz, indie estetikaz, Bon Iver-i buruzko musika aipamenez, grunge mugimenduz... eta antzekoek haratago.

“A quien dices tu secreto, das tu libertad”

Fernando de Rojas

NIVELES DE VIDA



Egilea:
Julian Barnes

Itzulpena:
Jaime Zulaika

Anagrama, 2014
143 or.; 14,90€

Urrian, Julian Barnesek (Leicester, 1946) bisita egin zigun. Hemendik ibili zen *La risa de Bilbao* lehiaketa dela-eta, sari bat eman baitzioten literatura-ibilbidearengatik eta umore adimentsuarengatik. Askok idatzi da patxada britainiarri buruz. Tristura ukitua duen umorea. Dotorea, estiloarekin, baina barrez lehertzekoa eta zorrotza. Barnesek, lur orotako pertsonaiak, genero horretako zenbait eleberririk ditu, hala nola *“Hablando del asunto”* eta *“El loro de Flaubert”*. Umorearen generoari egindako ekarpena dela-eta sari hori jasotzea Barnesen talentuaren eta balio-aniztasunaren beste frogatik da. Izan ere, gaur aipatzen dugun lana, *“Niveles de vida”*, genero komikoaren antipodetan dago. Barnesek bere emaztearen heriotzaren ostean bizi izandako doluari buruzko lan gogorra da.

Ingelesari umorearen adierazlea izateagatik saria ematea, hain justu ere Espainian lanik mingarriena argitaratzeaz zegoen sasoiaren, apur bat surrealista da. Baina, ondo begiratuta, britainiarri gustatzen zaizkion patuaren ironietako bat da. Nik bere lekuan jartzen dut nire burua. Oholtzan, hiri ezezagunean, barre egiteko gogo duen jendearekin betetako auditorioan, jendea zure ateraldien zain dagoela. Eta barrutik, benetako Barnes, emaztea galdu duelako minez, eta dolua azaltzen duen liburua inprentan ateratzeaz dagoela.

“Niveles de vida” eleberririk atipikoa da. Hiru kontakizun independente ditu. Irakurtzen hastean, noraez hasten zara. Badirudi loturarik gabeko piezak direla. Lehenengo bi kapituluak XIX. mendean ger-

tzen dira, eta prosari erreparatuz, Jean Echenozzen kontakizun bikainak ekartzen dizkigute gogora. Pertsonaia historikoen biografiak, eleberririk moduan kontatuak. Hasierako kontakizunean, zeruko lehenengo abenturazaleei buruz hitz egiten zaigu. Aire globaerostatiko ahuletan konkistatu nahi eta haien ordaina lortu zuten zoroak. Jainkoaren ikuspegia izatea. Kontakizun samurra da, metaforen bidez, ametsak helburu ditugun bizitzako fase horri buruz hitz egiten duena. Bigarren kapituluak lurrari lotuta dago gehiago. Koronel britainiar batek aktore frantziar ospetsu eta apetatsu batekiko sentitzen duen grinazko maitasun istorioa. Hirugarren kontakizuna, luzeena, are beherago dator. Lehenengo goi-goian garatzen zen, ehunaka metrora, eta bigarrena lurrean, erantzunik gabeko maitasuna aitzakia hartuta; hirugarrena, aldiz, lurpean dago. Infernutik hurbil. Barnesek heriotzari buruz hitz egiten digu lehen pertsonan. Emaztea galtzean sentitzen duenari buruz. Bere hitzetan, emaztea zen *“nire bizitzako arima; nire arimaren bizitza”*. Hogeita hamar urtez elkarrekin bizi izan ziren, eta orain, bera ez dagoela, guztia mina, nahastea eta bakardadea da. Bere buruz beste egitea ere pentsatzen du: *“nire bizimodua jarraipen pasibo hutsa bada, jardun egingo dut”*. Emaztearen gutun batek argia ematen dio. Mina tratuaren zati bat dela azaltzen dio. Sufritu egiten du maite zuelako, eta horrek lasaitu egin behar du: *“Galdutakoaren balioa beste egiten du min; beraz, nola edo hala, minaz gozatzeko duzu –hala uste dut”*.



DIPLOMACIA

Volker Schlöndorff

Zinemarako egindako antzerki-lanen egokitzapenek beti sorrarazten dute halako errespetu sentsazioa; genero baterako egokia izateak ez baitu bermatzen beste edozein generotarako balio duenik. A priori, ez da batere erraza zinemagintza bezalako genero batek bere buruari ezartzen dizkion zenbait debeku ulertzea, gela batean filmatzearena adibidez, horren zinematografikoa den elipsia bezalako baliabideekin jolas egin gabe. Hala ere, zazpigarren artearen baitan badira aipatu berri dugun ezaugarriak betetzen



dituzten zenbait adibide bikain. Oraintsu estreinatu den *"Un dios salvaje"* datorrit burura, Yasmina Reza-ren liburu batean oinarritua; edota Mankiewicz-en *"La huella"*, zergatik ez, azken adibide hori beste galaxia bateko dela uste dudaren arren.

Istorio erreal batean oinarrituta dago pelikula, eta horrek egiten du erakargarria, batik bat; bestalde, bi aktore bikain ere azaltzen dira (André Dussollier eta Niels Arestrup). Estatu Batuetako kritiko batek esandakoa gogora ekarriz, interpretazio horren bikainen ondorioz, bizimodu errealean seguru asko bestelakoak diren aktoreak goraiatzeko joera daukagu.

Laurogei bat minututan (horietatik hirurogeita hamar gela berean), Parisko kontsul suediarrek nazien jeneral bat kon-

bentzitu nahian egiten dituenak kontatzen digu, hiriburuko monumentu eta zubi guztiak suntsituko litzuzkeen dinamita aktibatzeke Hitler-en agindua bete ez dezan.

Filmaren izenburua oso argigarria da, zentzu horretan. Dinamita alde batetik, hitzak bestetik. Setiopean dagoen jeneralak (aliatuak Parisera sartzeaz daude, hain justu), ez du goitik datorre agindua ez betetzeko arrazoirik ia; izan ere, badaki laster batean atxilotu edota, akaso, exekutatu egingo dutela. Parisen salbatzaile den kontsulak ezer gutxi dauka eskaintzeko. Eta salbatzaile diogu, Paris ez baitzuten suntsitu, jakina denez.

Pelikulak ondorengo premisa hartzen du abiapuntu gisa: diplomaziak gehiago egin dezake gizateriaren alde, gerrak baino. Eta ez soilik kalte handiagoak saihesten dituztelako, orokorrean diplomazia gizonak jeneralak baino azkarragoak izan ohi direlako baizik. Izan ere, trikimailu edota iruzurrera jo beharra daukate, telefono bidez emandako agindu baten bidez segundu gutxi batzuen buruan guztia pikutara joan ez dadin.

Aipatu dugu, dagoeneko, zer erakargarri suertatzen zaizkigun zinemarako egokitutako antzezlanak; istorioaren amaiera eza-gutzeak ezinegona areagotu baino ez du egiten ikusleengan. Puristenen ustez, azken horrek interpretazio eta errerealizazio lanak balioetsi baino ez ditu egiten. Bukaeran zer gertatuko den arren jakin badakigun arren, laurogei minutuz gure arre-taz erabat jabetzea lortu duelako.

Elkarrizketetan dago tentsioaren gakoa, bai eta protagonisten interpretazioan ere; keinu txiki bat nahikoa dute hitzak iristen ez diren tokira heltzeko.

Xuhurkerietan erori gabe, oraingo honetan oso ondo bat emango diogu.

DOS EN LA CARRETERA

Stanley Donen, 1967

Senar-emazteen bikotea desegiteari buruzko inoizko filmik onenetakoa. Bergman?, *¿Secretos de un matrimonio?* Bahliteke, baina zuzendari horren filmek, monumentuak diren arren, ez daukate film honen besteko zinismorik eta garratasunik. Gainera, *Dos en la carretera* filmeko protagonistek arazo arruntak dituzte, ez doaz psikiatrarengana, eta zorionez, ez daukate erraz identifikatzeko moduko akatsik.



Aurka daudenek esan ohi dute lan hau ez dela ondo zehatu, eta egia esan, egoera gutxi batzuen ondorioz gorritu egiten gara, XXI. mendeko prisma berriztatzen baldin badugu. Baina hirurogeiko

hamarkada zen, ilusioen garaia (zaplaztekoa gero etorri zen). Behin hori esanda, bertuteak akatsak baino askoz gehiago dira.

Neurri handiagoan edo txikiagoan guztiok sentitu izan ditugun emozioak: maitasuna, grina, nazka, etsipena, axolagabekeria... film osoan zehar, aurretik ezarritako ordenarik gabe (badirudi ez dela muntaketarik egon), nahita bilatutako desordenan. Sekuentzia askotan, ordena kronologiko jakin bati jarraitu gabe, senar-emazteek elkarrekin egindako hamar urteetako harremanei buruz guztia kontatzen da, eta beti, itxuraz azalekoak diren zertzeladak ematen dira, baina beti azidotasan puntu batekin.

Gezurra dirudi Audrey Hepburn ikonikoaren filmografian


pelikula hau ez aipatzea "top" lanen artean (beste protagonista Albert Finney da); izan ere, askorentzat, niretzat barne, film hau beste askoren gainetik dago, hala nola *Desayuno con diamantes* mitikoaren gainetik.

Road movie bat dela esan dezakegu, filmaren zati handi bat ibilgailuen barruan garatzen da eta; hala ere, izen hori ematea gehiegi sailkatzea izango litzateke, errepidea anekdota hutsa baita. Benetako errepidea protagonisten bizimodua da.

Badakit ez dela erraza sinestea senar-emazte batzuk nazkatuta daudela emakumezkoa Hepburn izanda, Mary Quanten arropak aldean dituela, eta bikoteko krisiei aurre egiteko Rivierara bidaiak eginda... Azken finean, film batek asmatu egiten du atributu eta apaindura guztiak kentzen direnean, ikusleak bere burua filmean islatuta sentitzen duenean. Eta efektua lortu egiten da.

Zuzendaria Donen da, handietako bat (*Cantando bajo la lluvia*, *Charada*), film bakoitzean bizpahiru sekuentzia antologiko uzten dituena. Bere burua berriro asmatzen jakin zuen, eta ibilbideko azken tartean film atipikoak egin zituen, berrogeiko, berrogeita hamarreko hamarkadetan egin zituen eta oso ezagunak diren film kanonikoez harago doazenak.

Laburbilduz, film oso atsegin, baina bikotean garai zailak bizi dituztenek ez lukete ikusi beharko. Zineman guztia konpontzea errazagoa da, baina benetako bizimoduan ez behar emozionalek ere ez dute Manciniren musika izaten.



THE CORAL – The Curse of Love



Cd
(Skeleton Key - PIAS)
12 abesti

Liverpool hiritik gertu dagoen Wirral penintsulako banda isilegi ibili da azken aldian. Harritzekoa. Ez genekien etorkizunera begira zer asmo zuten, eta taldeko zenbait kidek, lan eta James Skelly anaiek, alegia, bakarka zenbait disko editaturik (benetan gomendatzeko modukoak), erantzuna nahiko agerikoa zen: nahita harturiko atsedena izan da, edota, jendaurrean berriz agertzeko aro ekonomiko oparoago baten zain egon dira, besterik gabe. Egia esan, iragan hamarkadan ez zuten kritikaren aldetik alabantza gehiegirik jaso, eta psikodelia kutsuko gitarradun pop musikak, eta Liverpool-eko soinu klasikoaren eraginpeko doinuek erantzun kaskarra izan zuten, baita entzule adituenean aldetik ere, nahiz eta disko guztietan abesti bikainen bat edo beste aurki genezakeen.

Esan genezake, *The Curse of Love* izeneko lanari esker berragertu dela The Coral. Baina ez da album berria, 2006 inguruan grabaturiko material argitaratu gabeaz osaturikoa baizik; *The Invisible Invasion* eta *Roots & Echoes* diskoen artean grabatu ziren abestiak, hain zuzen ere. Une hartan bueltatu zen Bill Ryder Jones gitarra-jolea bandara, stressak jota taldea utzi eta gero. Bitartean, taldeak bere ibilbideari ekin zion. Eta material hori gitarra-jolearen parte hartzerik gabe landutakoa zenez, alde batera uztea erabaki zuten. Gaur arte.

Diskoa entzun ostean, beste behin galdetzen diogu geure buruari, ea nola gera litezkeen halako abestiak argitaratu gabe. Entzuten hasi orduko harrapatzen zaituen lana da, nahiz eta konposaketa-mailan lorturiko heldutasunaren ondorioz ordura arteko abestien errepikapen kutsakorren arrastorik egon ez. Hor daude, oraindik ere, Folk edota pop psikodelikoaren ukitu xumeak, taldearen ezaugarriak; baina baita bestelakoak ere. Hasteko, taldekide guztien ekarpenak ageri-agerikoak dira; eta hori ez zen horren arrunta, ordura arte dena geratzen baitzen Ryder Jones-en gitarraren eraginpean. Bestalde, musikalki asko aberastu ziren. Hirurogeita hamargarren hamarkadako azken aldira garamatzaten moldaketak gehitu zituzten, sarri askotan gitarra akustikoaren aldeko apustua eginez, modu delikatuan, baina presentzia esanguratsuekin. Alemaniako *kraut*-a ere antzeman dezakegu, zenbait kasutan. *Underground* deritzen zirkuluak modan jarri aurretik gertatu zen hau guztia, Wilco-k berak ere mugimendu horrekin bat egitea erabaki zuen arte, gutxi gorabehera. Disko zoragarria da, asetzen zaituen horietakoa. Eta bitxia bada ere, bandaren zaleak ugaritu egingo dira, grabaketa egin zeneko sasoiaren beste-lakoetan zenbiltzan arren.

ZENBAIT ARTISTA – Algo Salvaje Vol. 1



Cd
(Munster)
28 abesti

Zaleak guztiz lotsatuta sentitzen dira musika-industriari Espainian egindako rockaren ondarea berrekuratzeko erakutsi duen mespretxua ikusita. Esaterako, Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan, etxe espezializatuek egin dute lan hori, soinu-kalitate eta aurkezpen-kalitate handiekin, baita Europako beste herrialde batzuetan ere, hala nola Frantzia. Baina Espainian -eta Euskal Herrian, arlo horretan desberdintasun gutxi baitago-, historia, historiaren aldarrikapena eta historia zaintzea guztiz alde batera utzi dira. Zale kuxkuxeroak CDan egindako berrargitalpen gutxi aurkituko ditu, fundamentu handirik gabe egindakoak, eta benetan interesgarria den materialaren ehuneko txiki bat jasota.

Gutxitan ikusi da norbaitek joera hori apurtu nahi izatea eta estiloarekin eta errespetuarekin berreskuratzen hastea. Horrexegatik, goresgarria da Munster etxeak egindako ahalegin hau, serie hau argi eta garbi diseinatu baita *Nuggets* disko bikoitz mitikoaren eraginpean. Disko horrek hirurogeiko hamarkadako garajeko rock iparramerikarra aldarrikatzen zuen, eta hurrengo hamarkadaren erdialdean bildu zuen Lenny Kayek -bide batez esanda, gerora, Patti Smithen gitarra-jotzailea eta ezkutari leiala izan zen-.

Izan ere, horixe biltzen du *Algo Salvaje* lanak lehen alean, beat hutsa eta garajea, hemen egindakoa, hirurogeiko hamarkadan. Aurkitzeko zaila den material askorekin, lehenengoz berrargitaratuta eta oso ondo aurkeztuta, Vicente Fabuel espezialistaren oharrekin. Diskoak estilo horretako funtsezko bandek (los Sonics, Electric Prunes, 13th Floor Elevators...) tokiko musikariengogo atsekabetuetan izandako eragina erakusten du. Beti ez zuten digestio ona egiten, edo tokiko produktuekin ukitzen zuten, eta beraz, emaitzak oso bereziak izaten ziren. Talde ezezagun asko, baina izen saihestezinentzako tartearrekin (hala nola Los Chyenes, Brincos eta Miguel Ríos eta "Antimusical" lan mitikoa), bertsioak eta berezko temak, Tomcat britainiar adoretzuak (Espainian bizi ziren eta Lola Floresen "A tu vera" lanaren bertsio monumentala egin zuten), Daikiris euskaldunak, Teddy Bautista ospetsuaren Canarios taldea, eta Camilo Sestoren hastapenak Los Botines taldearekin (beat atsegina). Eta, orotara, beharrezko bilduma, batzuetan naifa -une eta leku jakin baten emaitza-, baina gehienetan harregarria, lorpen ugari baititu.



ATTILA



Erakunde publikoek neurri handian murriztu dituzte OLBEri emandako diru-laguntzak eta, horren ondorioz, kanpaina honetarako programaturako izenburuak asko murriztu dira. Hori dela eta, azaroaren amaiera arte itxaron behar izan dugu Opera Lagunen Bilboko Elkartearen 63. denboraldiko oihala altxatzeko. Oraingoan, eta "Tutto Verdi" proiektuan aurrera eginez, OLBEren historian bigarren aldiz, Parmako maisuaren opera hau antzeztu da. Verdiren "galeren" aldian konposatuta dago (presakoa, azkarra, gaztea), eta ukitu aberkoiak ditu. Lan honi esker, Verdik Italiako mugimendu nazionalistari lotutako konpositore politiko moduan ospea lortu zuen. Maisu bikainak konposastutako hogeita zortzi operetatik bederatzigarrena da, eta 1846ko martxoaren 17an estreinatu zuten Veneziako La Fenice Antzokian. Nahiko arrakasta lortu zuen (italiar abertzaletasuna goratzen zen garai hartan Austria etxeak hartuta zuen inguru batean), baina kritika espezializatuak ez zuen hain ondo hartu.

Operak hitzaurrea eta hiru ekitaldi ditu. Musika Giuseppe Verdirena da, eta libretoa Temistocle Solerarena; Zacharias Werner-en *Attila, König der Hunnen* antzezlanean oinarrituta dago. Attila opera oro har ez da oso ezaguna, baina Verdiren lan guztien kalitatea du, soloak, abesbatzak eta orkestrazio oso ona barne hartuta. Kontatzen zaigun istorioa Italian kokatuta dago 425. urtean. Hitzaurrea Aquilean eta Adriatikoko urmalean gertatzen da, eta hurrengo hiru ekitaldiak Erroman. Argudioa benetako gertaera batean oinarrituta dago. Attilak bakea sinatu du Ezio jeneralarekin Aquilea konkistatu eta bertako monarka hil ondoren. Odabellak, Forestoren emaztegaiak, aitaren heriotzagatik mendeku hartuko duela zin egin du, eta horretarako, hunoen erregea hiltzea pentsatzen du. Azken hori, maitasun, balentria, itun eta engainuen istorio batean murgiltzen da.

Antzezenari dagokionez, Walloniek Royal Operaren eta Monte-Carloko Operaren koprodukzioa tradizionala eta erakargarria izan zen. Eszenazuzendaria Ruggero Raimondi baxu italiarra izan zen (Attilaren interprete nagusietako bat XX. mendearen azken laurdenean), gaur egun honetan aritzen baita. Argiztapena ona izan zen, jantziak dotoreak eta dekoratua sinplea, motibo belikoak zituzten zutabe mugikor batzuekin.

Musikari dagokionez, Francesco Ivan Ciampa zuzendari italiar gazteak, OLBEren debuta egitzen zuenak, oso ondo zuzendu zuen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Partituraren interpretazio oso energikoa lortu zuen, tentsio dramatikoari eutsita. Laneko musika-kontrasteak oso ondo definitu zituen, eta uneoro lortu zuen doinua bakarlariren lagun izatea.


Bakarlariei erreparatuz, OLBEk maila oneko taldea izan du oro har.

Verdik hautatu zuen operako protagonista baxua izatea eta, horregatik, oraingoan, Ildebrando D'Arcangelo bakarlari italiar ospea ekarri zuten. Akatsik gabe eta modu oso sinesgarrian interpretatu zuen "Attila" pertsonaia. Uneoro interpretazio talentu handia agerian utzi zuen, eta esku-hartze guztietan, oso abeslari handia dela erakutsi zuen. Ahots hedadura mugatua eta indar gutxikoa duen arren, erregistrorik baxuenean nabaritzen den teknika araztuari esker, abeslariaren tinbrea entzutea oso atsegina da. Bereziki aipagarria izan zen bigarren ekitaldiko "*Mentre gonfiarsi l'anima*" aria.

Roberto Aronica tenor italiarrak baliabideak dituen abeslaria dela erakutsi zuen. Goi inguruan ahots distiratsu eta argitsua duela erakutsi zuen, eta batzuetan partiturak eskatutako ñabardurak alde batera utzi zituen arren, oro har ondo aritu zen, eszenako interpretazioan zein "Foresto" pertsonaiaren rola interpretatzen.

OLBEren debuta egiten zuen Anna Smirnova soprano moskutarraren "Odabella" oso egokia izan zen. Eszenako lanean apur bat gehiago transmititu ahal izan zuen arren, ahots hedadura handiko soprano handia dela erakutsi zuen, argitasun eta garbitasun handiko notak egiteko gai dela. Diba errusiarrak bere burua luzitzeko aukerak aprobetxatu zituen, eta bereziki aipagarria izan zen hitzaurreko "*Santo di patria*" aria.





Nire ustez, lau bakarlarrien artean, erabat biribila izan ez zen musika-interpretazioa Angerl Ódena espainiar baritonoaren "Ezio" izan zen. Katalanaren ardura nagusia bolumena izan zen (soberan dabilen arren), eta ez ñabardurak. Horren ondorioz, interpretazioaren zatirik handienean vibratoa gehiegizkoa izan zen. Hala ere, bere mesedetan esan behar da, musikari dagokionez hazi egin zela obrak aurrera egin zuen heinean.

Bigarren mailako artean, oso ondo egon ziren Eduardo Ituarte tenor argentinarra "Uldino" interpretatuz, eta David Aguayo baxu bilbotarra "Leone" interpretatuz.

Bilboko Operaren Abesbatzak berriro ere maila oso ona erakutsi zuen esku-hartze guztietan, bai bakarka aritu zenean, bai obrako beste pertsonaia batzuekin batera aritu zenean. Aipatzekoak izan ziren eszenako eginkizuna zein interpretazio eginkizuna.

Laburbilduz, denboraldi hasiera itxaropentsua, antzokietan askoz gehiagotan programatu beharko litzatekeen opera modu egokian antzetzuta. Hain zuzen ere, konpositore bikainaren maisulanetako bat da honako hau.

"Attila"

Aktoreen zerrenda: Ildebrando D'Arcangelo (bx); Anna Smirnova (s); Roberto Aronica (t); Ángel Ódena (bar); Eduardo Ituarte (t); David Aguayo (bx); Bilboko Operaren Abesbatza; Euskadiko Orkestra Sinfonikoa; Eszenazuzendaritza: Ruggero Raimondi; Musika-zuzendaritza: Francesco Ivan Ciampa; Lekua, Euskalduna jauregia.



Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

© UNICEF/WHO2011-1312/Marco Dominio

SI PUDIERAS SALVAR SU VIDA,
¿LO HARÍAS?

HAZTE SOCIO DE UNICEF
HOY PUEDES CONVERTIRTE EN LA PERSONA
MÁS IMPORTANTE PARA ÉL. TE NECESITAMOS.

902 31 41 31 | www.unicef.es/hazte-socio

unicef 

Descubra todo lo que ofrece el nuevo CONSULTOR JURÍDICO

- Casi 4.000.000 de sentencias
- Todas las versiones de legislación
- Buscador inteligente y preciso
- Todo el conocimiento práctico que necesita
- Y todo ello por un precio sin competencia



PRUÉBELO GRATIS EN
www.consultorjuridico.es 

El **CONSULTOR JURÍDICO** es su mejor compañero de despacho



Buscador
inteligente



Todos
los contenidos



Facilidad
de uso



Información
práctica



Donde
lo necesite